

2. galdera - Haritz Azurmendi

Euskara eta euskal identitatea bereganatzea helburu

Euskal Herria bera, osotasunean.

Euskal nortasuna, lurraldetasuna, kosmobisio propioa, euskal kultura, ondarea

Ikasleek herri baten parte direla sentitzea, euskaraz jardunez.

Euskalduntzea zein euskaratzea, euskal kultura mulgildurik. Euskal identitatea txertatuta. Diziplinartekoa izan behar, irakasgai guztietan, onarri minimo bat. Herri izaera, Herri honek urteetan egindako lana. Herri mugimenduak. Burujabetza nahia.

Gertukoa ezagutzen hastetik abiatzea... Euskal kulturarekiko erakargarritasuna, harrotasuna eta interesa sentitzea... Mundu globalizatuaren dimentsiotik urrundu eta gure izaera propioa lehenetsi. Bertakoa bertakoentzat.

Euskal Herriari lotutako esparru guztiei: hizkuntza, kultura, geografia, historia, ohiturak eta tradizioa, iruditeria...

Kultur identitatearen ondare, izaera, partaidetza eta subjektua

Euskaldun izaera, euskaraz gain lurraldetasuna, historia, kultura mulgilduta bizitzeko gaur egungo erreferentziak emanaz

Euskal curriculumna:

2. galdera - Haritz Azurmendi

KMOko lehengaiak erabiltzea euskal komunitate trinkoa, kohesionatua eta dinamikoa osatzeko.

Hizkuntzaz gain, euskal herritar konsziente izatea.

Curriculumean, literaturari dagozkion idatzizko ekoizpenak hartzen dira aintzat.

IRALE 600etik ikasleenganako transmisioa bermatzea, aisialdi- hezkuntza formala dikotomia gainditzea eta "euskalduntasun garaikidea lantzea

Euskaldun izatearen kontzientzia lortzea mundu global honetan. Alegia, euskal betaurrekoak jantzita eramatera bultzatzea.

Mundu globalean euskal tokikotasuna aingura bezala.

Mundu ikuskera bat bereganatzeko eta euskal komunitate zein euskal kulturaren subjektu aktibo bihurtzeko, eragile izan daitezen etorkizunean.

Euskalduna eta euskal herritarra izatea

Mundu normalizatu bat, gainerako (estatudun) herrietako ikasleek bereganatzen dutenaren parekoa. "Euskal" hori egintzat eman eta curriculumari buruz hitz egiten hastea litzateke interesgarria.

Euskal curriculumna:

3. galdera - Idurre Alonso

Landu behar duenaren kontzientzia hartzea berebizikoa da. Horretarako, oinarriko nahiz etengabeko prestakuntzan lanketa hori egin ahal izateko tresnak eta baliabideak eskaini behar zaizkio.

Formazioa, irizpideak, saretzea

Era batekoa. Euskal curriculumean murgilduta egon behar, baita euskaltzasunean ere. Euskarazko jakinduriak C1 maila baino handiagoa izan behar. Ikasleen euskal kultura zein euskara maila igotzeko erronka.

Euskarazetik euskalduntzera pasatu, edozein arlotako irakaslea izanik euskaldun ikuspegia oinarrian izatea eta ikasleengan eragitea

Irakasleak euskal kulturaren janztea eta kulturaren transmisore direla konturatztea.

Irakasle eta ikasleak motibatzea, irakasleak politikoki eta kulturalki ahalduntzea, IRAL Eren moduko egitasmoak babestea...

Curriculumaren eduki eta konpetentzietan administrazioak euskal curriculumaren zehaztapen esplizitua egin beharko luke sare publiko irakasle guztiek beregain hartuko badute.

Baliabideak jarri eta esperientzia positiboak sartzeko aukerak eskaini. EC-n oinarrituriko materialgintza izatea hezkuntza legearen oinarria eta baliabide materialak ludikoak izatea.

Prestakuntza teorikotik gelaratu daitezkeen proposamenetara pasatu behar da. Transmisioa bizipenetan oinarritu behar da. Era berean tradizioak garrantzia badu ere egungo kultura kontutan hartu behar da.

Euskal curriculumna:

3. galdera - Idurre Alonso

Erronka izugarria: lehenengo, irakasleak eurak horretan kontzientziatzen eta janzten; bigarrenik, hizkuntza eta kultura hegemonikoen itzalpetilk irteteko saiakera egiten.

Irakasleak ikasleen eredu diren neurrian, bere arloez gain, euskal kulturaren transmisore direla jabetu/formatu behar dira

Ahozotasuna esparru ezberdinetan, etengabeko prestakuntza eta euskaltzale tasun profilak sustatu.

Irakasle gaiak euskarazko kulturgintzan janztea eta egun lanean daudenen eguneratzea. Prozesu hauen ikerketa aplikatua eta ebaluazioa. Gainera, hezkuntza formala eta ez formaleren arteko zubilanerako subjektu gisa kokatzea.

Kultur eragile izatearen kontzientzia garatzea, eta kontzientzia horren bidez euskal kultura zehar-lerro bihurtzeko begirada garatzea, eta horretarako ideia eta tresna baliagarriak eskuragarri jartzea.

Espazioak bermatzea irakasleek berezkoa duten prestakuntza esparruan.

Euskal curriculumna:

4. galdera - Ibai Iztueta

C izango da nagusi eta kasu batzuetan d erantzuna

"Euskalduna naiz". Galderak oso erantzun laburra eskatzen du. Euskaraz galdetuz gero. Oso erraza litzateke euskaraz erantzutea

a) Euskalduna naiz. Elaboratu beharko balute identitatearen azalpena, arazo gehiago lituzkete.

Euskalduna naiz erantzuna testuinguru soziolinguistiko euskaldunetan topatuko genuke. Euskal hiztunen kopuruak laguntzen duelako erabileran eta horrek eraikitzen duelako identitateak. Soy vasco erantzuna euskaraz bizi ez den horrengan.

Erantzuna eskualdearen izaera eta bertako komunitatearen arabera izango da.

Euskalduna naiz aukeratuko lukete gehienek, nahiz eta gero ez izan euskal hiztunak edo ez izan bestelako atxikimendurik,

Seguru aski gustatuko ez zaigun erantzuna jasoko dugu. Gutxiengo batek euskalduna nauz esango du. Hego EH an aniztasun handia dago. Euskal periferia errealitate bat da, migrazioak beste bat eta euskal dimentsioan murgilduta dagoen komunitatea ere.

Entzun nahiko genuke "euskalduna naiz" baina lekuaren arabera "soyvasco entzungo genuke. Euskalduna naiz ez du esan nahi euskal kultura buzitzendutenik ezta erabiltzendutenik.

A. Ikasle gehienek euskaldunak direla esango lukete, nahiz eta euskara erabili ez

Euskal curriculumna:

4. galdera - Ibai Iztueta

Giro euskaldunean hazitakoek "a" erantzungo dute; giro eraldunekoek "b" eta bestelako egoera batzuetan daudenek "d".

Tokian tokiko errealitate sozial eta kulturalaren arabera...

Eskualdea zein den, erantzuna desberdina litzateke, baina eremu mistoetan (euskara-gaztelania), seguruenik harritu egingo ginateke "biak" zenbat jendek erantzuten duen ikusita... DBHn gero eta ohikoagoa da erdaratik euskaldun jotzea norberaren burua.

Euskalduna naiz

Bilbo Handian oso erantzun ezberdinak egongo lirateke. Ziur aski ikasle gehienek biak esango lukete, baina ziur aski etorkin askok ez bat, ez bestea.

Euskal curriculum:

5 .galdera - Eneko Bidegain

Instituzioek baliabide eta bitarteko egokiak bermatu.

Irakasleek euskal kulturarekin ezagutzea eta gozatzea

Euskaratu ez baino, euskalduntzen baditugu: hezkuntza soziolinguistikoa, euskal kultura, lurraldetsuna, euskararen aniztasuna, esperientzia bibentzial positiboak, (gela barruan eta gelaz kanpo), sorkuntza... landuz eta bultzatuz.

Euskal Estatua eraiki. Estatu propiorik gabe, nekez bermatu ahal izango da euskal nazio-ikuspegia.

Egunean behin bezalako jolas komunitario gehiago sortzea

Esparru guztietan, eskola, aisialdian ,herri mailan Euskal erreferenteak : artistak, irratia, telebista, idazleak...etengabe euskaraz eta erakargarriak izan daitezen proposamenak eskaintzea

Euskal kultur sorkuntza ezagutzeko eta gozatzeko aukera gehiago eskaini ikasleei.

EHko Hezkuntza sare guztietan irakasleak "formatu" eta erreferenteak (iturriak, pertsonak, eragileak, hedabieak...) eskura izango diren sarea osatu, besteak beste.

Erabaki marko propioa

Euskal curriculumna:

5 .galdera - Eneko Bidegain

Elkartu, landu, saretu, inplikati eta gauzatu

Idealki legedian euskal curriculuma egotea. Hau lortzea oraingoz zaila denez, ikasmaterialen eta irakasleen prestakuntzaren bitartez bermatu daiteke.

Lehenik eta behin, emozioetatik tiraka nazionaltasun hori landu beharra. Arlo guztietan landu beharrekoa eta gure arteko elkartrukeak sustatuz.

Edukietan baino bizipenak eskaini behar zaizkie. Tokian tokiko herri, eskualde, lurraldetik EH-ko beste lurraldeetako euskal komunitatearekin esperientziak partekatzeko. Euskarri materialetan aniztasuna eta gaurkotasuna uztartzea.

Lurraldetasuna. Euskara. Ikuspegi nazionala. Alderaketak egiterakoan, estatuetatik haratago joan eta errealitate nazionalak, mundu mailan, ontzat ematea. Industria, kooperatibismoa, ikerkuntza... Kirolak eta sukaldaritza baino gehiago.

Iruditeria kolektiboa euskaratik sortu behar da, baina irakasleek zer iruditeria dute? Prestakuntzak garrantzi handia du, eta transmititu nahi diren kanonak modu bateratuan lantzeak ere bai.

Euskara inposiziotzat hartzen duten ikasleen pertzepzioa aldatu behar da, normalizazioaren bitartez. Gazteentzako erreferente erakargarriak sortu behar dira.

Euskal curriculuma: